

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3989

IRAGARKIA, 2026ko irailaren 8koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren eskaerak Arratzua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz udalerrietako (Araba) eguzki-instalazio fotovoltaiako hauetarako eta haiei lotutako azpiegituretarako: «Regina Solar» (10,12 MW) eta «Nova Solar» (1 MW).

Kontuan izanik zer xedatzen duten Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan eta Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 53. artikuluan, eta bat etorritik Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jartzen dira «Regina Solar» eta «Nova Solar» instalazio fotovoltaiakoen eta haiei lotutako azpiegituren proiektuak eta ingurumen-inpaktuaren azterketa bateratua.

- Eskatzailea: Solaria promoción y desarrollo fotovoltaico S.L.U. (IFK: B87878518).
- Xedea: energia elektrikoa sortzea eguzki-teknologia fotovoltaiakoaren bidez.
- Eskaeren gaia: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Espedientea: 01-GE-Y-2025-00021.

- Proiektua: «Regina Solar». Deskripzioa:

– «Regina Solar» eguzki-instalazio fotovoltaikoa. Eguzki-instalazioaren osaera: 620 Wp-ko 21.252 panel fotovoltaiako eta 1.133 kW-eko 8 inbertsore, Vitoria-Gasteiz eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrietan. Esparru hesituaren azalera: 13,90 ha.

– 0,800/30 kV transformazio-zentroa, 10,12 MW-eko potentziakoa.

– 30kV-eko lurpeko ebakuazio-linea, 9.425 m-ko luzeraduna, transformazio-zentrotik 220kV-eko SE Promotores Vitoria azpiestazioraino.

– Aurrekontua (BEZa gabe): 3.482.841,60 euro.

• Ebakuazio puntua: Sortutako energiarako ebakuazio-puntua: 220kV-eko ST Vitoria, Red Eléctica de España, S.A.U.-koa, Indarberri S.L. sustatzailearen proiektu fotovoltaiako hauekin partekatutako ebakuazio-azpiegituretan zehar: «Vitoria Solar 1» (esp. zk.: 01-GE-Y-2024-00006) eta «Vitoria Solar 2» (esp. zk.: 01-GE-Y-2024-00007).

- Eraginpeko udalerriak: Vitoria-Gasteiz eta Arratzua-Ubarrundia.

Espedientea: 01-GE-Y-2025-00031.

- Proiektua: «Nova Solar». Deskripzioa:

– «Nova Solar» eguzki-instalazio fotovoltaikoa. Eguzki-instalazioaren osaera: 625 Wp-ko 1.764 panel fotovoltaiako eta 200 kW-eko 5 inbertsore fotovoltaiako, Vitoria-Gasteizko udalerrian. Esparru hesituaren azalera: 2,38 ha.

– 0,800/30 kV transformazio-zentroa, 1 MW-eko potentziakoa.

– 30kV-eko lurpeko ebakuazio-linea, 300 m-ko luzeraduna, instalazio fotovoltaiakoaren transformazio-zentrotik Nova azpiestazioraino.

– Aurrekontua: 288.283,20 euro.

• Proiektua: «400/30kV Nova Solar azpiestazioa» proiektua, Vitoria-Gasteizko udalerrian. Osaera: transformadore bat, 400/30 kV-ekoa eta 70/90/120MVA-ko potentziakoa, eta goi-tentsiorako 30 eta 400 kV-eko tresneria.

– Aurrekontua (BEZa gabe): 4.005.832 euro.

• Proiektua: «NOVA eguzki-instalazio fotovoltaiakoaren lurpeko ebakuazio-linea», Vitoria-Gasteizko eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrietan. Zirkuitu hauek osatua:

– SE Nova–RM Nova: 400kV-eko zirkuitua, «Nova» azpiestaziotik «Nova» neurketa-esparruraino, 9.160,65 m-ko luzerakoa.

– RM Nova–SE Vitoria (REE): 400kV-eko zirkuitua, «Nova» neurketa-esparrutik Red Eléctrica de España S.A.U.-ko Vitoria 400 kV azpiestazioraino, 184,731 m-ko luzerakoa.

– Aurrekontua (BEZa gabe): 6.938.785,41 euro.

• Proiektua: «Nova 400 kV neurketa-esparrua», Vitoria-Gasteizko udalerrian.

– Aurrekontua (BEZa gabe): 652.604 euro.

• Ebakuazio puntua: Sortutako energiarako ebakuazio-puntua: Vitoria 400 kV azpiestazioa, Red Eléctrica de España S.A.U.-koa.

• Eraginpeko udalerriak: Vitoria-Gasteiz eta Arratzua-Ubarrundia.

Proiektu hauen aurretiazko administrazio-baimena ematea Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritzari dagokio, eta informazio publikoaren izapidea bete behar du, bi proiektuen ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 36. artikuluan xedatu bezala.

Xedapen hori betez, jendaurrean jartzen dira eskaerak, interesdunek zein beste edozein herri-tarrek aztertu ahal dezan bi proiektuen dokumentazioa, bai Industria Administrazioari Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego Kalea 2, Vitoria-Gasteiz) bai Interneteko www.euskadi.eus web-orrialdean, Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazio Publikoa azpiatalean:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>

Iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 30 egun balioduneko epea egongo da alegazioetarako. Alegazioak idatziz nahiz euskarri fisikoan aurkeztu ahalko dira, bai Arabako Lurralde Ordezkaritzako erregistro nagusian, bai EAEko Administrazio Publikoko erregistro elektronikoro-korrean (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>) bai Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan aurreikusten dituen moduetan.

Gogorazten da pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14. artikuluan identifikatzen dituen beste subjektu batzuek bitarteko elektronikoez baliatu behar dutela administrazio publikoekiko izapide administratiboetarako. Hala, bada, azken horiek jendaurreko izapide hau dela-eta aurkezten dituzten alegazioak baliabide elektronikoen bidez bideratu beharko direla ezinbestez.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 8a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.